



Zure aisialdirako gida

www.Egunkaria.com/agenda

Egunkaria

DURANGALDEA - ARRATIA

♦ Tel.: 656 790 774

♦ Faxe: 94 681 35 08

♦ Publizitatea: 94 620 29 84
658 726 227

♦ Posta Elektronikoa:
egunduran@euskalnet.net



SERGIO S.A. BILTEGIAK

Logelak • Gelak • Sarrerako altzariak
Jangelak • Lanparak • Altzari lagungarriak

Laister: Anboto Eraikina - 48220 ABADIÑO

Iturriza, 40 42

Tel.: 94 682 41 95

BERRIZ



Brico Centro

Eitua Indust. San Fausto 1 eraikina - 48240 BERRIZ

Tel.: 94 622 53 16 - Faxe: 94 622 54 56



**BRIKOLAJE
ZENTROAK**

sake

Lehengo **EUSKOLUR**

Frogatzeko eta kontrolatzeko osagaiak, S.A



TXANTILLOI LEUNAK, HARIAK ETA
ILDOKATUAK

KONTROLERAKO TRESNERIAREN
DISEINUA ETA FABRIKAZIOA

AERONAUTIKARAKO ETA ARMENTZAKO
DOITASUN MEKANIZAZIOAK

DOITASUN MANDRINO HEDAGARRIAK
(TOBLER MOTAKOAK)

HORTZ LEUNDUN ERAZTUNAK, "HIRTH"

ARTEZTUTAKO KREMAILERAK

ARDATZ ZILINDRIKO ETA ARTEKATUEN
ARTEZKETA 2M.RAINOKOA PUNTUEN

ARTEAN

EITUA, 60

☎ 94 682 41 75

Faxe: 94 622 51 04

42 Postakutxatila

e-mail: evac@evac.es

Web: www.evac.es

BERRIZ



**BERRIZKO
UDALA**

**Berriztar! Zure lehenengo
berba beti euskaraz**

EUSKARA BATZORDEA ZURE ZERBITZURA

Gurutzearen mendeurrena

Hainbat ekitaldi egin dabez urte osoan Arratian


Gorbeia Gurutzeak 100 urte bete dauz. Mendeurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egin dabez urtean osoan, Arratiako herrietan. Ekitaldirik beroenak urriaren 11n eta 12an eginikoak izan ziran.

Izan be, urriaren 12an urtemugea ospatu eben. Egun horreetan Euskal Herri osoko mendizaleak batu ziran Gorbeia tontorrean. Atondutako gurutzearen inguruan, erromeria eta bertso saioa egon ziran, besteak beste. Horrezaz ganera zemendiaren 9an, Gorbeialdea zaintzen, eta bere barri zabaltzen eta ikertzen jardundako pertsonak saritu dabez.

Milaka lagun izan dira Gorbeia tontorrean

Ehun urte horreetan guztietan milaka lagun izan dira Gorbeia tontorrera igon dabenak.

1901. urtean jaso eben lehenengo gurutzea, 33 metrotik gorako gurutzea. Inguruko agintariak eta bertako jende asko hurreratu zan gurutzearen inaugurazio ekitaldira. Baina jasotearen poztasunak ez eban asko iraun. Hilabete beranduago haize bortitz batek bota egin eban. Bigarrena, 1903an altzau eben. Mila mendizale inguruk igon eben Gorbeia ganera. Hiru urte beranduago jausi egin zan. Gaur egun ezagutzen duguna hirugarren gurutzea da.



JOXEAN GIL-GARCIA

... Mendeurren egunean hainbat lagun igo ziren Gorbeia Gurutze.

DURANGALDEA

Euskera zerbitzua jaio da

Durangaldeko Mankomunitateak Euskera Zerbitzua martxan jartea erabagi dau, bagilean. Horretarako 5,6 milioi pezeta erabiliko dauz, urtero. Mankomunitateak Abadiñon —Astola auzunean— daukan egoitza izango dau kokagune Euskera Zerbitzuak. Gitxienez, bost urteko iraupena eukiko dau Euskera Zerbitzua eskaintzeko hartutako konpromisoak.

Euskerearen sustapena eta horren erabilera bultzatzea

izango dau helburu zerbitzuak. «Euskerea zaindu gura dogu, batez be, kalidadeari jagokonez», dino Mankomunitateko lehendakari Marian Larraurik. Era berean, Udalakaz be zuzenean lan egitea dauka helburu. Zerbitzua bera sortzea izan da lehenengo pausoa; Ostean, sortu leitekezan preminei egokitzeko joango dira.

Bestalde, Merindadeko Batzar Nagusien lehen aipua egiten dauen eskuizkribua berres-

kuratu dau Gerediaga Alkartek, apirilean. Martzanako Jau-nak 1387an bere torretxea erre-teagaitik Mondragoe herriari jarritako zigorrak parkatzen deutezan gutuna, hain zuzen be. Ardi-narruan idatzitako 1410. urteko agiri horretan, Gerediagan Merindadeko hamabi elizateetako alkateek egiten ebezan Batzar Nagusien lehen aipamena egiten da. Eskuizkribua Durangaldeko batzar-etxean dago.